**UDAL BATZARRAK 2015EKO UZTAILAREN 23AN EGINDAKO EZ OHIKO SAIOAREN AKTA.-**

Soraluzeko hirian, bi mila eta hamabosteko uztailaren hogeita hiruan, hemeretzi orduak izanik eta aurrez deialdia delarik, Udaletxeko Saio Aretoan Patricia Borinaga Albeniz, Nagore Zabala Arrieta eta Iñaki Rubio Torrientes Alkateorde jaun-andreak eta Ramon Gallastegi Aldazabal, Javier Garmendia Ondarra, Unai Larreategi Azurmendi, Roke Akizu Aizpiri, Lorea de Castro Lete, Ainhoa Unamuno Aranburu eta Xabier Arribillaga Beretxinaga, Zinegotzi jaun-andreak, Iker Aldazabal Basauri Alkate jaunaren Lehendakaritzapean biltzen dira, lehenengo deialdiz eta Udaleko Idazkaria ere bertan dagoela, Itziar Sagastagoia Zabala And. alegia.

**1.- 2015EKO UZTAILAREN 9KO SAIOAREN AKTA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.-** Ikusirik, aho batez erabakitzen da 2015eko uztailaren 9an egindako saioaren akta onartzea, Batzarkide guztiei aurrez kopia bana bidali zaielarik.

**2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.-** Alkatetzak jarraian zehaztutako dekretu bidez hartutako erabakien berri ematen zaio Udal Batzarrari:

- **Ekainaren 15eko 45/2015 dekretua.** Honen bidez, Pello J. Etxeberriaren eta Jon Oñederraren lan-jarduna %95era zabaltzea erabakitzen da.

- **Ekainaren 16ko 46/2015 dekretua.** Honen bidez, SS-5575-AY matrikuladun Ford Escort ibilgailua kentzea erabakitzen da, hiri hondakin solido izatera pasatuz.

- **Ekainaren 16ko 47/2015 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko

**ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO EL DÍA 23 DE JULIO DE 2015.-**

En la villa de Soraluze-Placencia de las Armas, siendo las diecinueve horas del día veintitres de julio de dos mil quince, previa convocatoria al efecto, se reúnen en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, los Sres. Tenientes de Alcalde, Dña. Patricia Borinaga Albéniz, Dña. Nagore Zabala Arrieta y D. Iñaki Rubio Torrietes y los Sres. Concejales D. Ramón Gallastegi Aldabal, D. Javier Garmendia Ondarra, D. Unai Larreategi Azurmendi, D. Roke Akizu Aizpiri, Dña. Lorea de Castro Lete, Dña. Ainhoa Unamuno Aranburu y D. Xabier Arribillaga Beretxinaga, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, D. Iker Aldazabal Basauri, en primera convocatoria y asistiendo como Secretaria, Dña. Itziar Sagastagoia Zabala.

**1.- APROBACIÓN, EN SU CASO, DEL ACTA DE LA SESIÓN DE FECHA 9 DE JULIO DE 2015.-** Vista, se acuerda por unanimidad, aprobar el acta de la sesión de fecha 9 de julio de 2015, de la que se ha remitido copia a todos los Sres. Corporativos.

**2.- DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.-** Se da cuenta a la Corporación de los acuerdos adoptados mediante los siguientes Decretos de Alcaldía:

- **Decreto 45/2015, de 15 de junio,** por el que por el que se amplia al 95% la jornada laboral de Pello J. Etxeberria y Jon Oñederra.

- **Decreto 46/2015, de 16 de junio,** por el que se elimina el vehículo Ford Escort, matrícula SS-5575-AY, que pasa a ser residuo sólido urbano.

- **Decreto 47/2015, de 16 de junio,** por el que se aprueba la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de

baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

• **Ekainaren 18ko 48/2015 dekretua.** Honen bidez, 2014. urteko zabor bilketa zerbitzuko erroldari dagozkion eskubideak anulatzea erabakitzen da.

• **Ekainaren 19ko 49/2015 dekretua.** Honen bidez, 14/2015 zerrendako fakturak onartzea, obra baimenak ematea, hainbat ordainketa egitea eta aurrekontu ezberdinak onartzea erabakitzen da.

• **Ekainaren 25eko 50/2015 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

• **Ekainaren 26ko 51/2015 dekretua.** Honen bidez, etxez-etxeko laguntza zerbitzuaren beharrak betetzeko, Onintza Narbaiza aldi baterako kontratatzea erabakitzen da.

• **Ekainaren 29ko 52/2015 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

• **Uztailaren 1eko 53/2015 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

• **Uztailaren 2ko 54/2015 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

• **Uztailaren 3ko 55/2015 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

• **Uztailaren 3ko 56/2015 dekretua.** Honen bidez, 15/2015 zerrendako fakturak onartzea, obra baimenak ematea, hirigintza zerbitzuaren aurrekontu

su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

• **Decreto 48/2015, de 18 de junio,** por el que se anulan derechos reconocidos al padrón del servicio de recogida de basuras correspondiente al año 2014.

• **Decreto 49/2015, de 19 de junio,** por el que se acuerda aprobar la relación de facturas 14/2015, conceder diversas licencias de obras, realizar determinados abonos y aprobar varios presupuestos.

• **Decreto 50/2015, de 25 de junio,** por el que se aprueba la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

• **Decreto 51/2015, de 26 de junio,** por el que se contrata temporalmente a Onintza Narbaiza para cubrir las necesidades del servicio de asistencia domiciliaria.

• **Decreto 52/2015, de 29 de junio,** por el que se aprueba la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

• **Decreto 53/2015, de 1 de julio,** por el que se aprueba la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

• **Decreto 54/2015, de 2 de julio,** por el que se aprueba la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

• **Decreto 55/2015, de 3 de julio,** por el que se aprueba la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

• **Decreto 56/2015, de 3 de julio,** por el que se acuerda aprobar la relación de facturas 15/2015, conceder diversas licencias de obras, aprobar varios

ezberdinak onartzea eta kiroletako hainbat ordainketa egitea erabakitzen da.

- **Uztailaren 6ko 57/2015 dekretua.** Honen bidez, Tokiko Gobernu-Batzarreko kideak izendatzea erabakitzen da.

- **Uztailaren 6ko 58/2015 dekretua.** Honen bidez, Alkateordeak izendatzea erabakitzen da.

- **Uztailaren 6ko 59/2015 dekretua.** Honen bidez, Alkateari dagozkion hainbat eskuduntza Tokiko Gobernu-Batzarraren esku uztea erabakitzen da.

- **Uztailaren 6ko 60/2015 dekretua.** Honen bidez, Tokiko Gobernu-Batzarraren bileren egunak eta orduak finkatzea erabakitzen da.

- **Uztailaren 7ko 61/2015 dekretua.** Honen bidez, 2015eko 3. hiruhilabeteari dagokion, etxe, denda eta industrietako zabor-bilketa zerbitzuaren zergadunen errolda onartzea erabakitzen da.

- **Uztailaren 7ko 62/2015 dekretua.** Honen bidez, bertan zerrendaratutako salaketengatik eskubideak anulatzea erabakitzen da.

- **Uztailaren 8ko 63/2015 dekretua.** Honen bidez, bertan zerrendaratutako 2015eko ibilgailuen zerga erroldari dagozkion eskubideak anulatzea erabakitzen da.

- **Uztailaren 9ko 64/2015 dekretua.** Honen bidez, aurrekontuko kreditua aldatzeko 2015-KALD-000003-00 zk. duen espedientea onartzea erabakitzen da.

- **Uztailaren 10eko 65/2015 dekretua.** Honen bidez, Udaltzain zereginak betetzeko Ibai Otazua aldi baterako kontratatzea erabakitzen da.

- **Uztailaren 13ko 66/2015 dekretua.** Honen bidez, bertan izendatzen den zergadunari, bere ibilgailuari behin betiko

presupuestos del servicio de urbanismo y realizar determinados abonos de deportes.

- **Decreto 57/2015, de 6 de julio,** por el que se nombra a los miembros de la Junta de Gobierno Local.

- **Decreto 58/2015, de 6 de julio,** por el que se nombra a los Tenientes de Alcalde.

- **Decreto 59/2015, de 6 de julio,** por el que determinadas atribuciones correspondientes al Alcalde se delegan en la Junta de Gobierno Local.

- **Decreto 60/2015, de 6 de julio,** por el que se fijan el día y la hora de celebración de las sesiones de la Junta de Gobierno Local.

- **Decreto nº 61/2015, de 7 de julio,** por el que se aprueba el padrón de contribuyentes del servicio de recogida domiciliaria, comercial e industrial de basuras, correspondiente al tercer trimestre de 2015.

- **Decreto 62/2015, de 7 de julio,** por el que se anulan los derechos reconocidos en concepto de denuncia que se indican en el mismo.

- **Decreto 63/2015, de 8 de julio,** por el que se anulan derechos reconocidos al padrón del impuesto de vehículos de tracción mecánica del año 2015 que se indican en el mismo.

- **Decreto 64/2015, de 9 de julio,** por el que se aprueba el expediente de modificación de créditos identificado con el nº 2015-KALD-000003-00.

- **Decreto 65/2015, de 10 de julio,** por el que se contrata temporalmente a Ibai Otazua para desempeñar labores de Policía Municipal.

- **Decreto 66/2015, de 13 de julio,** por el que se aprueba la devolución de la cuota proporcional por baja definitiva de

baja emateagatik dagokion kuota proportzionala itzultzea erabakitzen da.

su vehículo al contribuyente que se indica en el mismo.

• **Uztailaren 8ko 67/2015 dekretua.** Honen bidez, bere ibilgailuan izandako kalteengatik J.I.P.S.J.k aurkeztutako ondarezko erantzukizun eskaera aintzakotzat hartzea erabakitzen da.

• **Decreto 67/2015, de 8 de julio,** por el que se acuerda estimar reclamación de responsabilidad patrimonial cursada por J.I.P.S.J. por daños en su vehículo.

• **Uztailaren 16ko 68/2015 dekretua.** Honen bidez, biztanleen udal erroldako inskripzioaren iraungipena dela eta, M.S.O.U.ri erroldan baja ematea erabakitzen da, ez duelako udal inskripzioa berritzeko eskabidea aurkeztu behar zen epean eta moduan.

• **Decreto 68/2015, de 16 de julio,** por el que se declara la caducidad de la inscripción en el padrón municipal de habitantes de este ayuntamiento y se acuerda su baja en el mismo a M.S.O.U., ya que no ha presentado solicitud.

• **Uztailaren 20ko 69/2015 dekretua.** Honen bidez, peoi lanpostua aldi baterako betetzeko Udalak egindako azken deialdia baliatuz, zerrenda horretatik bi pertsona kontratatzea erabakitzen da, uztailaren 24tik 27ra, biak barne, jaietako saioak aurrera eramateko beharrezkoak diren peoi-lanak egin ditzaten.

• **Decreto 69/2015, de 20 de julio,** por el que se contratan dos personas de las inscritas en la última convocatoria realizada para provisión temporal de puestos de peón en este Ayuntamiento, desde el día 24 al 27 del presente mes de julio, ambos inclusive, para desempeñar funciones de peonaje necesarias para el desarrollo de dichos festejos.

• **Uztailaren 20ko 70/2015 dekretua.** Honen bidez, Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea onartzea erabakitzen da, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin.

• **Decreto 70/2015, de 20 de julio,** por el que se aprueba el expediente de modificación de créditos mediante habilitaciones de crédito, correspondiente al presupuesto de este ayuntamiento, con el detalle por partidas que figura en la propuesta presentada.

• **Uztailaren 20ko 71/2015 dekretua.** Honen bidez, Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea onartzea erabakitzen da, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin.

• **Decreto 71/2015, de 20 de julio,** por el que se aprueba el expediente de modificación de créditos del presupuesto de este ayuntamiento, mediante créditos adicionales, conforme al detalle por partidas que se relacionan en la propuesta formulada al respecto.

**3.- <u>AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUAREN 4. ARTIKULUA ALDATZEA.-</u>** 2014ko abenduaren 17ko Udalbatzak, 2015. urterako aurrekontuaren exekuzio-araua onartu zuen.

Aipatu arauaren 4. artikuluak gastuen lotura mailak zehazten ditu. Gaur egun indarrean dagoen arau horrek, inbertsioei

**3.- <u>MODIFICACIÓN DEL ARTÍCULO 4 DE LA NORMA DE EJECUCIÓN PRESUPUESTARIA.-</u>** El Pleno celebrado el pasado 17 de diciembre de 2014 aprobó la Norma de Ejecución Presupuestaria para el año 2015.

El artículo 4 de la citada norma, determina los niveles de vinculación de gasto, de modo que actualmente el

dagokien seigarren kapitulua klasifikazio organiko mailara lotzen du.

capítulo sexto de inversiones está vinculado a nivel de clasificación orgánica.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauak bere 14-6 artikuluan dio *eragiketa arrunten ziozko sarrerak gutxienez gastu arruntak eta zorren amortizazio-gastuak bat eginez sortzen den kopuruaren beste izan behar direla.* Egun dagoen lotura mailak arriskuan jartzen du erregela hori betetzea, aurrekontuaren exekuzioa aurrera doan heinean.

El artículo 14-6 de la Norma Foral 21/2003 Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, señala que *los ingresos por operaciones corrientes deberán ser, como mínimo, iguales a los gastos de igual naturaleza más los gastos de amortización por endeudamiento*. Y el nivel actual de vinculación pone en peligro garantizar el cumplimiento de esta regla a medida que se ejecuta el presupuesto.

Guzti horregatik, lotura mailen aldaketa proposatzen da. Eztabaidatu ondoren, bototara jarri da eta, aho batez, honako hau **ERABAKI DA:**

Es por todo ello que se propone la modificación del nivel de vinculación. Tras la correspondiente deliberación y sometido a votación, por unanimidad, se **ACUERDA:**

**Bakarra.-** Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 4. artikuluaren aldaketa onestea, gaurtik aurrera hurrengo lotura mailak izango direlarik:

**Único.-** Aprobar la modificación del artículo 4 de la Norma de Ejecución Presupuestaria, de modo que en adelante los niveles de vinculación serán los siguientes:

***4. ARTIKULUA. Lotura mailak.***

Aurrekontu-kredituak mugatzaileak eta lotesleak dira, honako lotura mailen arabera:

*Kapitulu mailan:*
I Kapitulua - Pertsonal Gastuak

*Kapitulu eta klasifikazio organiko mailan:*
VI Kapitulua - Inbertsio Errealak

*Klasifikazio Organiko mailan:*
II Kapitulua - Gastuak Ondasun Arrunt eta zerbitzuetan
III Kapitulua - Finantza Gastuak
IV Kapitulua - Transferentzia Arruntak
IX Kapitulua - Finantza pasiboak

***ARTICULO 4º. Niveles de Vinculación.***

Los créditos presupuestarios tienen carácter limitativo y vinculante, según los niveles de vinculación siguientes:

*Vinculación a nivel de Capítulo:*
Capítulo I - Gastos de Personal

*Vinculación a nivel de Capítulo y clasificación orgánica:*
Capítulo VI - Gastos de Inversión

*Vinculación a nivel de Clasificación Orgánica:*
Capítulo II - Gastos en bienes corrientes y servicios
Capítulo III - Gastos Financieros
Capítulo IV - Transferencias corrientes
Capítulo IX - Pasivos Financieros

**4.-** **KREDITU ALDAKETAK.-** **Akizu jaunak**, hitza hartuz, esku-baranda jartzeko onartutako gastua neurriz kanpokoa iruditzen zaiola adierazten du.

**4.-** **MODIFICACIONES DE CRÉDITOS.-** El **Sr. Akizu** toma la palabra para manifestar que el gasto aprobado de instalación de barandilla le parece

Ez daude konforme 8.800 euroko gastuarekin, kopuru horri murriztu zitekeela pentsatzen dutelako. Eta amaitzen du esanaz gaiari beste buelta bat eman behar zitzaiola.

sobredimensionado. No están de acuerdo con el gasto de 8.800€. Piensa que podría haberse ajustado más y concluye que podía haberse dado otra vuelta.

**Larreategi jaunak** uste du segurtasuna zerbait merkeagoarekin ere bermatu zitekeela. Hasierako tartean heskai-zuhaixkak landatu zitezkeen eta horrela segurtasuna bermatuta geratuko zen, baina kostu txikiagoarekin. Nahiago zuketen beste aukera batzuk ere aztertu izan balira. Jarduera honek zalantzak sortzen dizkie. Gaineratzen du, gai honen inguruko azalpenak eskertuko lituzketela udal aparejadorearen aldetik.

El **Sr. Larreategi** considera que podría haberse garantizado la seguridad con una actuación menos costosa. Comenta que en el primer tramo podía haberse previsto la plantación de unos setos, mediante los cuales igualmente se garantiza la seguridad y con menor coste. Le hubiera gustado que se hubieran valorado otras posibilidades. La actuación les genera dudas. Añade que agradecerían una explicación por parte del aparejador municipal.

Etxebizitza alorreko laguntzen partidari eta honen kreditu murrizketari dagokienez, nahiz eta dinamika hori martxan jartzeak ez duen gastu handiegirik eskatzen, kreditua gorde egin behar zela uste du. Beraiei leporatu izan zaie, gainera, kopuru hori etxebizitza hutsari ezarritako errekargutik zetorrela. Hori kontuan izanda eta gainkarguaren helburua ez bada diru gehiago biltzea, bildutako dirua etxebizitza alorrean berrinbertitu behar zela adierazten du.

En cuanto a la partida de ayudas en materia de vivienda y la disminución de su crédito, considera que si bien la puesta en marcha de la dinámica puede no requerir un desembolso económico, ese crédito podía haberse guardado. Teniendo en cuenta además lo que se les ha achacado en cuanto a que esa cantidad proviene del recargo aplicado a la vivienda vacía, dice que si el objeto de aplicar el mismo no es recaudatorio, habría que reinvertir lo ingresado en materia de vivienda.

Kontzeptuari begiratuta, ez dute onartzen partida horretako kreditua murrizterik.

En suma conceptualmente no aprueban que disminuya el crédito de la partida.

**Alkate jaunak** adierazten du herritarren segurtasun alorrean ez dutela ezertxo eskatimatuko. Planteatu den irtenbideari erantzunez esaten du, aukerarik merkeena hautatu dela eta etorkizunean mantentze-lan gutxien eskatuko duena. Ziur dago aukeratu den irtenbidea egokiena dela, segurtasun, mantentze-lan eta diru aldetik.

El **Sr. Alcalde** manifiesta que no va a escatimarse en cuestiones de seguridad para los ciudadanos. Atendiendo a la solución que se plantea se ha optado por la opción más económica y también cuyo mantenimiento con vistas a futuro es más sencillo. Tiene el convencimiento de que la solución elegida es la más adecuada desde el punto de vista de la seguridad, mantenimiento y economía.

Heskai-zuhaixkak landatzea beste aukera bat litzatekeela dio, baina esku-barandek hobeto bermatzen dutela segurtasuna.

Considera la plantación de setos una alternativa pero afirma que con la colocación de barandillas se garantiza más la seguridad.

Kreditu transferentzien bidezko kreditu aldaketarako 4/2015 zk.ko espedientea.- Udal honen Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu transferentziaren bidez egin beharreko Kreditu Aldaketarako Espedientearen berri eman da. Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 29. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei. Eztabaidaren ondoren bototara jartzen da eta, gehiengoz, aldeko sei botu eta bost abstentzioekin, honako hau **ERABAKI DA:**

***Lehena.-*** Proposamenean zerrendatzen diren gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, Udal honen Aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Expediente de modificación de créditos nº 4/2015, mediante transferencia de créditos.- Dada cuenta del Expediente de Modificación de Créditos, mediante transferencia de créditos entre partidas presupuestarias de Gastos que afectan al Presupuesto de este Ayuntamiento. Visto el informe emitido por la Secretaria-Interventora, quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos en el art. 29 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Tras la correspondiente deliberación y sometido a votación, por mayoría de seis votos a favor y cinco abstenciones, **SE ACUERDA**:

***Primero.-*** Aprobar el expediente de Modificación de Créditos, mediante transferencia de créditos entre partidas presupuestarias de Gastos que afectan al Presupuesto de este Ayuntamiento del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y siguiente resumen por Capítulos:

**TRANSFERITUTAKO KREDITUAK BILTZEN DITUZTEN GASTUAK (BAJAK)**
GASTOS CUYOS CREDITOS SE TRANSFIEREN (BAJAS)

| **Kap.** Cap. | **Izena** Denominación | **Hasierako kreditua** Crédito inicial | **Gutxipena** Minoración | **Amaierako kreditua** Crédito resultante |
|---|---|---|---|---|
| 2 | Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan / *Gastos en bienes corrientes y servicios* | | - 15.550,00 | |
| 4 | Transferentzia arruntak / *Transferencias corrientes* | | - 17.000,00 | |
| **GUZTIRA** / TOTAL … | | | - 32.550,00 | |

**GEHITUTAKO KREDITUAK BILTZEN DITUZTEN GASTUAK (ALTAK)**
GASTOS CUYOS CREDITOS SE INCREMENTAN (ALTAS)

| **Kap.** Cap. | **Izena** Denominación | **Hasierako kreditua** Crédito inicial | **Gehikuntza** Aumento | **Amaierako kreditua** Crédito resultante |
|---|---|---|---|---|
| 2 | Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan / *Gastos en bienes corrientes y servicios* | | 8.200,00 | |
| 4 | Transferentzia Arruntak / *Transferencias corrientes* | | 15.550,00 | |
| 6 | Inbertsio Errealak / Inversiones reales | | 8.800,00 | |
| **GUZTIRA** / TOTAL … | | | 32.550,00 | |

***Bigarrena.-*** Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoen Kontuhartzailetza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin islatzea.

***Segundo.-*** Siendo este acto firme y ejecutivo sin necesidad de ulteriores trámites procede que por los Servicios de la Intervención de Fondos se refleje en la contabilidad la modificación de créditos aprobada con efectos inmediatos.

**5.- <u>MAISUEN ETXEAN, FRONTOI KALEA 5, 1.ezk., KOKATUTA DAGOEN UDAL ETXEBIZITZA ERRENTAN ESLEITZEKO DEIALDIA EGITEA.-</u>** **Alkate jaunak** hitza ematen dio **Borinaga andreari** eta honek puntuaren sarrerakoa egiten du. Eta jakinarazten du Maisuen Etxean etxebizitza bat hutsik dagoela 2014ko abuztuaren 29a geroztik.

Azaltzen du gizarte ongizate sailean egungo oinarriak aldatzea planteatu dela. Eta aldaketa proposamena berari bidali zitzaiola, eta De Castro zinegotzi andreak ere jaso duela. Adierazten du, halaber, hau guztia eta gero, Osasun, Gizarte Ongizate eta Inmigrazioaren Batzordeak, 2015eko uztailaren 20an egindako bileran, bizkorregi iritzi diola momentu honetan oinarrien aldaketa egiteari. Egokiago iritzi dio 2017. urtea arte itxoiteari, hori baita etxebizitzak alokatzeko sinatutako kontratuek daukaten iraupena. Hutsik dagoen etxebizitzari dagokionean, hurrengo proposamena adostu da: etxebizitza esleitzea 2017. urtera mugatuz kontratuaren iraupena (luzapenak barne hartuta). Adostu da, baita ere, lehendik dagoen zerrenda indarrean edukitzea 2017. urterarte, kontratu guztien epemuga arte alegia.

**De Castro** andrea bat dator Borinaga andreak emandako azalpenarekin. Ez dio inolako zentzurik ikusten oinarriak momentu honetan aldatzeari eta egokiagoa iruditzen zaio izandako esperientzia oinarritzat hartuta lan egitea eta aldaketa 2017an planteatzea.

**5.- <u>REALIZAR LA CONVOCATORIA PARA ADJUDICAR EN ARRENDAMIENTO LA VIVIENDA DE TITULARIDAD MUNICIPAL SITA EN LA CASA DE MAESTROS, FRONTOI KALEA 5, 1º izq.-</u>** El **Sr. Alcalde** cede la palabra a la **Sra. Borinaga** y ésta introduce el punto. Informa de la existencia de una vivienda en la casa de maestros que permanece vacía desde el 29 de agosto de 2014.

Comenta que desde el área de bienestar social se ha planteado realizar modificaciones de las bases actuales. Cuenta que la propuesta le fue enviada a ella y que asimismo la concejala Sra. De Castro también la ha recibido. Añade también que tras esto y en el seno de la comisión de sanidad, bienestar social e inmigración, celebrada el 20 de julio de 2015, se ha considerado apresurado realizar una modificación de las bases en el momento actual. Se considera más adecuado esperar al año 2017, año en que vencen los contratos de arrendamiento suscritos. En cuanto a la vivienda que se encuentra vacía se ha consensuado la propuesta de hacer la adjudicación de dicha vivienda, limitando su duración total hasta el año 2017 (teniendo en cuenta las prórrogas). Asimismo, se ha consensuado dar vigencia a la lista resultante hasta el año 2017, y hasta la fecha de cumplimiento de la totalidad de los contratos.

La **Sra. De Castro** muestra su conformidad con lo expuesto por la Sra. Borinaga. Comenta que no tiene sentido modificar las bases en el momento actual, y manifiesta la idoneidad de realizar un trabajo desde la experiencia adquirida y plantear la modificación el año 2017.

Ikusita 2011ko urriaren 5ean Soraluzeko Udalbatzak hasierako onespena eman ziola udalerri honetako maisuen etxean (Frontoi kalea 5) kokatuta dauden udal jabetzako sei etxebizitzetako errentariak hautatu eta onartzeko oinarriei, eta jendeaurrean egon ondoren, behin betiko onartuta geratu zirela.

Visto que en fecha de 5 de octubre de 2011 el pleno del Ayuntamiento de Soraluze aprobó con carácter inicial las bases para la admisión y selección de arrendatarios de seis viviendas municipales sitas en la Casa de Maestros (Frontoi kalea 5) de esta localidad, y tras exposición pública quedaron aprobadas con carácter definitivo.

Ikusita egun, etxebizitzetatik bat (Frontoi kalea 5, 1. ezk.) hutsik dagoela eta behar duen funtzio soziala betetzen ez duela.

Visto que a día de hoy una de las viviendas (Frontoi kalea 5, 1ºizq.) permanece desocupada y que no se cumple la función social encomendada.

Ikusita 2015eko uztailaren 20an egindako bileran, osasun, gizarte ongizate eta inmigrazioaren batzordeak aldeko irizpena eman zuela.

Visto el dictamen favorable de la comisión de sanidad, bienestar social e inmigración, celebrada en fecha de 20 de julio de 2015.

Udalbatzak bere kideen aho batekotasunez **ERABAKITZEN DU:**

El Pleno por unanimidad de sus miembros **ACUERDA:**

Maisuen etxean (Frontoi kalea 5, 1.ezk.) kokatuta dagoen udal jabetzako etxebizitza errentan esleitzeko deialdia egitea.

Realizar la convocatoria para adjudicar en arrendamiento la vivienda de titularidad municipal sita en la Casa de Maestros (Frontoi kalea 5, 1º izq.).

Alokairuaren iraupena urte betekoa izango da eta, gehienez ere, 2017. urtera arte luzatu ahal izango da, sinatu zen azken kontratuaren iraupen datarekin bat etorriz, urte horretan oinarri arautzaileen planteamendu bat egitea aurreikusten delako, gainontzeko kontratuak bukatzen direnean hain zuzen.

La duración del arrendamiento será de un año, prorrogable máximo hasta el año 2017, que coincidirá en fecha con la del vencimiento del último contrato suscrito, debido a que se prevé realizar un replanteamiento de las bases reguladoras, el año 2017, año en que finalizan los demás contratos.

15 laneguneko epea irekitzea eskabideak egiteko eta esleipen prozesuan parte hartzeko beharrezko diren agiriak aurkezteko. Aipatu epea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da zenbatzen.

Abrir un periodo de 15 días hábiles al objeto de que se presenten las solicitudes y documentación necesaria para participar en el proceso de adjudicación. El plazo comenzará a contarse a partir del día siguiente a la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Prozedura arautzen duten oinarriak Soraluzeko Udaleko gizarte zerbitzuen sailean egongo dira ikusgai eta eskuragarri.

Las bases que rigen el procedimiento podrán obtenerse en el departamento de servicios sociales del Ayuntamiento de Soraluze.

**6.- SORALUZEKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO II. PLANA**

**6.- II PLAN PARA LA IGUALDAD ENTRE MUJERES Y HOMBRES DE SORALUZE**

**(2015-2018).-** **Alkate jaunak** hitza ematen dio **Borinaga andreari**. Honen hizketaldia hitzez hitz jasotzen da.

"Beste ezer baino lehen, puntu honen inguruan esan nahi nuke, plenoan onartzeko dakarkigun Plan hau aurreko legegintzaldian egindako lanaren emaitza dela. Horrela, bada, gaur eskerrak eman behar dizkiegu Loreari, aurreko legegintzaldian Parekidetasun Batzordeko Presidente izan denari, Yoanari, berdintasuneko teknikariari, eta Emakumeen Topagunea osatzen duten pertsona orori, Planari –plan ona zalantzarik gabe- eskaini dioten lanagatik eta inplikazioagatik.
Agiri hau 2015eko apirilaren 30eko Parekidetasun Batzordean aurkeztu eta onartua izan zen eta gaur behin betiko onarpena emango diogu hemen, berehala has gaitezen plana garatzen. Esku hartzeko lau ardatzen inguruan egituratuta dago plana: Berdintasunaren aldeko gobernantza, balioen aldaketa eta emakumeen ahalduntzea, gizarte antolamendu erantzunkidea eta emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea.

Lehen esan bezala, plan ona da, eta beharrezkoa gainera. Beharrezkoa dela diot, XXI. mendean ere, zoritxarrez, egunero esnatzen garelako edo oheratzen garelako berri lazgarriekin, gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna oraindik orain ere nahia dela eta ez errealitatea ohartarazten gaituzten berriekin:

Euren bikoteak edota bikote ohiak hiltzen dituzten gizonezkoak, emakume horiek beraiek gabe aurrera egiteko gai direla onartu ezin dutelako; lankide emakumeak "emagaldutzat" jotzen dituzten gizonezko politikariak; euren hauteskunde-interesak emakumeen eskubideen gainetik jarriz legeak egiten dituzten alderdi politikoak; sexu-erasoak emakume gazteei herri eta hirietako jaietan; soldata desberdintasuna generoaren arabera, krisiarekin areagotu egin dena, emakumeek gizonezkoek baino % 26 gutxiago irabaziz Euskadin.
Jarduera hauen kontra egiteko eta

**(2015-2018).-** El **Sr. Alcalde** cede la palabra a la **Sra. Borinaga**. Se transcribe su intervención.

"Lo primero que me gustaría decir en relación a este punto es que este Plan que hoy traemos a Pleno para su aprobación es fruto del trabajo realizado en la pasada legislatura y, por tanto, lo que toca es agradecer a Lorea, como Presidenta de la Comisión de Igualdad en dicha legislatura, a Yoana, como técnico de igualdad, y a todas las personas que integran el Emakumeen Topagunea, su trabajo y su implicación en la elaboración de este Plan, que es sin lugar a dudas un buen plan.
Este documento se presentó y fue aprobado en Comisión de Igualdad el pasado 30 de abril de 2015 y lo que hoy se hace aquí es aprobarlo definitivamente con el objeto de comenzar a desarrollarlo de inmediato. El Plan se estructura alrededor de 4 líneas de intervención: Gobernanza para la Igualdad, Cambio de valores y Emponderamiento de las mujeres, Organización Social Corresponsable y Erradicación de la Violencia contra las Mujeres.
Como he dicho anteriormente este es un buen Plan y, además, es un Plan necesario. Necesario porque, desgraciadamente, en pleno siglo XXI, casi todos los días seguimos levantándonos o acostándonos con noticias que nos hacen ser conscientes de que la igualdad real entre hombres y mujeres en nuestra sociedad sigue siendo más un deseo que una realidad:
Hombres que asesinan a sus parejas o ex parejas porque son incapaces de asumir que éstas pueden continuar con su vida sin ellos; políticos que se refieren a compañeras de profesión como "putas baratas"; partidos políticos que legislan anteponiendo sus intereses electorales a los derechos de las mujeres; agresiones sexuales a jóvenes en las fiestas de los pueblos y ciudades; una brecha salarial de género, agravada durante la crisis, que hace que en Euskadi las mujeres ganan un 26% menos que los hombres.
Para combatir este tipo de acciones y

benetako berdintasunean aurrera egiteko oraindik ere beharrezkoak ditugu horrelako planak eta mugimendu feminista aktibo eta konprometitu bat. Nuria Varela idazleak "Feminismo para principiantes" liburuan dioen bezala, feminismoa EZ da matxismoaren aurkakoa. Izan ere, feminismoa berdintasunaren teoria da, gizonak eta emakumeak eskubide eta askatasunei dagokienean berdinak garela defendatzen duena. Matxismoa, aldiz, gutxiagotasunaren teoria da, gizonak emakumeak baino gehiago direnaren ustetan diskriminatzen duena. Hortaz, biak parekatzea, arrazakeria eta arrazakeriaren kontrako borroka gauza bera direla esatea bezalakoxea da."

para avanzar hacia la igualdad plena es por lo que seguimos necesitando este tipo de planes y un movimiento feminista activo y comprometido. Un feminismo que, tal y como dice la escritora Nuria Varela en su libro "Feminismo para principiantes", NO es lo opuesto al machismo, ya que el feminismo es una teoría de la igualdad que propugna que hombres y mujeres somos iguales en derechos y libertades y el machismo es una teoría de la inferioridad que consiste en la discriminación basada en la creencia de que los hombres son superiores a las mujeres. Equiparar ambos, es como decir que racismo y lucha contra el racismo, son lo mismo".

**De Castro andreak** parte hartzen du eta Borinaga andreak esandakoekin ados dagoela adierazten du. Prozesu parte-hartzaile garrantzitsu baten ondorio sortutako plana dela esaten du, potentea, integrala, eta hainbat jarduera dagoeneko gauzatzen ari direla plan horren baitan.
Plana abian jartzeko ardura eta gidaritza gobernu talde berriari dagokiola uste du eta, ondorioz, talde horren esku egongo dela parte-hartzea bermatzea. Gaineratzen du, baita ere, plana gauzatzeak isla izan beharko duela udal aurrekontuan.

La **Sra. De Castro** interviene y muestra su conformidad con lo expresado por la Sra. Borinaga. Dice que es un plan desarrollado en el seno de un proceso participativo importante, que se trata de un plan potente, integral y que hay ya actuaciones que se están llevando a cabo en el marco del mismo.
Considera que el liderazgo de la puesta en marcha del plan le corresponde al nuevo equipo de gobierno y que en sus manos está el garantizar la participación. Añade asimismo que la materialización del plan habrá de tener reflejo en el presupuesto municipal.

**Borinaga andreak** horretarako konpromisoa dagoela baieztatzen du.

La **Sra. Borinaga** confirma que existe compromiso al respecto.

Parekidetasun Batzorde Informatzailearen 2015eko apirilaren 30eko aldeko irizpena kontuan izanik, Udal Batzarrak aho batez erabakitzen du Soraluzeko emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. plana onartzea 2015-2018 aldirako.

Visto el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Igualdad de fecha 30 de abril de 2015, la Corporación Municipal acuerda por unanimidad aprobar el II Plan para la Igualdad entre hombres y mujeres de Soraluze para el periodo 2015-2018.

**7.- EAJ-PNV ETA EHBILDU UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO MOZIO BATERATUA, HERRIKO TABERNAK.-** **Alkate jaunak** mozioaren irakurketari ekiten dio.

**7.- MOCIÓN CONJUNTA PRESENTADA POR LOS GRUPOS MUNICIPALES EAJ-PNV Y EHBILDU, SOBRE LAS HERRIKO TABERNAS.-** El **Sr. Alcalde**

procede a la lectura de la moción.

*"35/02 Auziaren sententzia dela-eta*

*Garai politiko berri eta itxaropentsuak irekiak diren uneotan, instituzio, erakunde, talde eta norbanako andanak aldarrikatu du egungo testuinguru politikoan horrelako, eta ondotik datozen, makroepaiketa politikoek lekurik ez dutela. Iraganeko argazkiak direla horiek.*

*"Dena ETA da" teoriaren aitzakipean ireki zen 35/02 epaia orain dela hamabi urte baino gehiago. Oinarri beretik etorri ziren orduan hainbat egunkariren itxiera, indar politikoen ilegalizazioak eta ehunka pertsonen atxilotze eta espetxeratzea. Eskubide zibil eta politikoen urraketa ageriko honek orotariko erakunde, norbanako eta instituzioen arbuiatze argia ekarri du urteotan. Baita nazioarteko erakunde eta instantzia juridikoena ere.*

*Orain, epai honen azken sententzia jakinarazi berri den honetan, 104 herriko taberna konfiskatu eta hainbat laguni espetxe zigorra ezarria izan zaie Madrildik politika egiteagatik; guzti honek oinarri oso ezkorra ezarriz ondoren datozen epaiketei begira eta egun bizi dugun egoera politikoari begira ere.*

*Hau dela-eta, Soraluzeko Udalak ondokoa adierazten du:*

*- Eskubide zibil eta politikoen defentsan, horrelako egoerak atzerapausu nabarmenak dira gure herrian. Are gehiago egungo testuinguru politikoan. Eskubide guztiak pertsona guztientzat. Makroepaiketa politikoekin amaitzeko eskatzen dugu.*

*- Kaltetuak suertatu diren elkarte eta tabernetako langileei eta bazkideei ere gure elkartasuna adierazi nahi diegu.*

*- Egun bizi dugun egoera politiko berrian horrelako gertaerek lekurik ez dutela adierazi nahi dugu, eta gure salaketa irmoa mahaigaineratu. Hala nola, bake iraunkor eta justu bat eraikitzeko uneotan, horrelako egoerak eman ez daitezen lan egingo dugula nabarmentzen dugu Soraluzeko Udaletik."*

*"En relación a la sentencia 35/02*

*En el actual tiempo político abierto, nuevo y esperanzador, un gran número de instituciones, entidades, grupos y personas han revindicado que en el contexto político actual que este y los siguientes macrojuicios políticos no tienen lugar. Esas son fotografías del pasado*

*El sumario 35/02 se inició bajo la excusa de la teoria de que "todo es ETA", hace más de doce años. Sustentado en ese argumentario vinieron luego el cierre de periódicos, las ilegalizaciones de fuerzas políticas y la detención y encarcelamiento de cientos de personas. Esta manifiesta violación de derechos civiles y políticos ha traído un claro rechazo de instituciones, personas e instituciones en estos años, así como de instituciones e instancias jurídicas internacionales.*

*Ahora, en el momento en que se ha dado a conocer la última sentencia de este sumario, desde Madrid, se confiscan 104 "herriko tabernas" y se les impone encarcelación a un grupo de personas por realizar actividad política; todo lo cual cimenta una base muy negativa tanto de cara a los juicios siguientes como de cara a la situación política que vivimos hoy en día.*

*Por ello, el ayuntamiento de Soraluze declara lo siguiente:*

*- Estas situaciones con un claro retroceso en la defensa de los derechos civiles y políticos en nuestro país. Más aún en el contexto político actual. Todos los derechos para todas las personas. Demandamos la finalización de los macrojuicios políticos.*

*- Queremos expresar nuestra solidaridad con todas las personas trabajadoras o socias de las sociedades y tabernas, que han resultado damnificadas.*

*- Queremos expresar que, en la nueva situación política que vivimos actualmente, este tipo de hechos no tienen cabida y planteamos nuestro firme rechazo. Asimismo, subrayamos que, desde el Ayuntamiento de Soraluze, en estos momentos de construcción de una paz justa y duradera, trabajaremos, para que no sucedan hechos de este tipo."*

**Larreategi jaunak** herritarrei jakinarazpen bat egitea eskatzen du, hots, akordioaren zabalkundea egitea, komunikabideetatik aparte. Udalak komunikazio formal bat egitea eskatzen du, bere hitzetan, *"kaleari begira harro esan dezagun".*

El **Sr. Larreategi** pide realizar la difusión de este acuerdo, además de a los medios, también a los ciudadanos. Pide que se realice una comunicación formal. En sus palabras, *"que lo transmitamos con orgullo de cara a la ciudadanía"*.

**Alkate jaunak** erantzuten du aurreikusita daukala honen berri ematea plaentxia.eus-en.

El **Sr. Alcalde** responde que tiene previsto informar del mismo en plaentxia.eus

Saioa amaitu aurretik, **Alkate jaunak** jakitera ematen du kontsulta bat aurkeztu dela Mendiola industrialdeko 11. zk.ko eraikinaren beheko solairuan dagoen lokalean Kultur Elkarte Arabiar Islamikoa jartzeko aukerei buruzkoa.

Antes de finalizar la sesión, el **Sr. Alcalde** informa de una solicitud de consulta habida sobre la posibilidad de implantación de local para Asociación Cultural Árabe Islámico en el edificio situado en Mendiola industrialdea nº 11, planta baja.

Argitzen du, egungo arau subsidiarioak azterturik, ezinezkoa dela proposatutako tokian jarduera hori burutzea eta udal aparejadorearen erantzuna zentzu horretan joango dela. Edozein modutan, atea irekita uzten du plan orokor berria indarrean sartzen denerako, zeren eta tramitean dagoen hiri antolaketarako planean posible izango litzateke jarduera hori ezartzea, eta aspektu hau ere jakinarazi egingo zaio kontsulta egileari.

Informa que tras haber analizado las actuales normas subsidiarias no es posible llevar a cabo la actividad que se pretende en el emplazamiento propuesto, y que la contestación del aparejador municipal se va a realizar en este sentido. De todas formas deja una puerta abierta, una vez entre en vigor el nuevo plan general, ya que en el planeamiento del municipio en tramitación sí se permitiría dicha actividad, extremo que también se va a trasladar al solicitante.

**Larreategi jaunak,** ikusita plan berriarekin posible izango dela jarduera hori adierazitako tokian ezartzea eta plan berria laster sartuko denez indarrean, jarduerari baimena ematearen aldeko aukera planteatzen du. Eta Idazkariari galdetzen dio ea horrelakorik egin daitekeen.

El **Sr. Larreategi**, en previsión de que con el nuevo plan se posibilitará la actividad pretendida en aquel emplazamiento y dada la proximidad en fechas de su entrada en vigor, plantea la posibilidad de autorizar el ejercicio de esa actividad y pregunta a la secretaria si ello es posible.

**Idazkariak** erantzuten dio jarduera horrek ez lukeela, gaur egun, aldeko txostenik jasoko, indarrean dauden arauek ez dutelako horrelakorik baimentzen. Badirudienez baimendutako jarduera bat izango dela epe ertainera, sustatzaileek −hala eginez gero− aurkeztuko duten proposamena aztertzen has gintezke, aipatutako jarduera lehenbailehen eta arau berriak indarrean sartu bezain laster

**La Secretaria** contesta que, a fecha de hoy, dicha actividad no puede contar con un informe positivo, ya que las normas actuales no lo permiten, si bien teniendo en cuenta que a medio plazo parece que va a ser una actividad autorizada, se podría comenzar analizando la propuesta que en su caso presenten los promotores, para poder legalizar la actividad cuanto antes y una

legeztatu ahal izateko.

Eta beste gairik ezean eta hemeretzi orduak eta berrogeita hamar minutu direnean, Lehendakaritzaren aginduz saioa bukatutzat ematen da, hori guztia Idazkari bezala ziurtatzen dudalarik.

vez entren en vigor las nuevas normas.

Y no habiendo más asuntos de qué tratar y siendo las diecinueve horas y cincuenta minutos, de orden de la Presidencia se levanta la sesión, de todo lo cual, como Secretaria, certifico.